

UDALEKO OBRA ETA ZERBITZUETAKO ELEKTRIKARIEN LANPOLTSA OSATZEKO AUKERAKETAREN OINARRIAK

1.- OINARRIEN XEDEA

Oinarrien xedea **obra eta zerbitzuetako elektrikarien** lanpoltsa osatzeko aukeratzeko prozesua arautzea da.

Lanpostua Enplegatu Publikoaren Estatutuak jasotakoari jarraituz, C sailkapen mailan, C1 azpitaldean sailkapen taldekoa da, eta 10. mailari dagokion soldata-maila du.

Halaber 2. hizkuntza eskakizuna du derrigorrezkoa.

2.- LAN BALDINTZAK ETA EGINKIZUNAK

Lansaiio jarraitu edo zatituarekin (zerbitzuaren premien arabera) egingo du lana.

Lanegunak eta ordutegia Udalak urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren eta zerbitzuaren premien arabera; adibide gisara Bergarako jaietan, San Martin jaietan, San Martzial jaietan, Erramu zapatuan eta horrelako jaietan antolatzen den egitarauak eskatzen duen langile-premiari erantzuteko lan egin beharko du, guztiak egutegian aurreikusiko direlarik.

Lanpostuaren eginkizunak dira:

1. Instalazio elektriko berriak sortzea: argiteria publikoan, semaforoetan zein udalaren menpeko eraikin publikoetan.
2. Semaforoak eta argiteria publikoko sarea, argiak eta aginte-koadroak mantentzea.
3. Udalaren menpeko eraikin publikoetan, sareko eta argiteriako instalazioak mantentzea.
4. Aparatu elektrikoak (estufak, xurgagailu edo aspiradoreak, bulegoko makinak eta argiteria publikoko osagarriak) lantegian konpontzea.
5. Azpikontratazio bidez egindako argiteria publikoko beste instalazio elektrikoak zaindu eta ikuskatzea.
6. Uraren ponpaketa-instalazioetan mantentze-lan elektrikoa.
7. Behar izanez gero, beste arduradun batzuei laguntza ematea.
8. Bere nagusiek agindutakoa.

3.- BALDINTZAK

- a) 16 urte beteta izatea.
- b) Batxiller titulua, FPII edo parekoa den tituluaren jabe izatea.
- c) Europar Batasuneko kide diren estatuak baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuak herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino

gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe dauden atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela frogatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.

- d) Diziplinazko espedientearen bidez inongo Administrazio Publikoren Zerbitzutik baztertuta ez izatea, eta funtzio publikoak betetzeko ezgaiturik ez egotea.
- e) Lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzea galaraziko dion gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez izatea.
- f) Bateriaezintasunik edo ezgaitasun legalik ez izatea, Herri Administrazioaren Zerbitzuan dagoen pertsonalaren bateriaezintasuna arautzen duen abenduaren 26ko 53/1984 Legean xedatutakoaren arabera. Dena den, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezina burutzen ari direnek aukeratzeko eskubidea erabili ahal izango dute, aipatutako legearekin bat etorriz.
- g) **2. hizkuntz eskakizunari** dagokion euskara maila, derrigorrezkoa.

Oinarri honetan zerrendatutako baldintzak, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean bete beharko dira eta plaza eskuratu bitartean mantendu. d), e) f) eta g) azpiataletan ezartzen diren baldintzak bere unean egiaztatu beharko dira.

4.- INSTANTZIAK

Izangaiek 3. oinarrian jasotako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute lehiaketa-oposizioan parte hartzeko aurkeztzen den eskabidean. Halaber, alegaturiko merezimenduen egiaztagiria erantsiko zaizkio, nahitaezko baldintza lehiaketan kontutan hartua izateko.

Instantzia horiek Alkate-Udalburuari zuzenduko zaizkio eta Udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztuko dira, edo Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoa eta Prozedura Administratibo bateratuaren Legeko 38.4 artikuluan xedatutako moduan, **2008ko azaroaren 14a arteko epean**.

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskabideak ondoko baldintza hauek bete beharko ditu atzera bota ez daitezten:

- a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.
- b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte (fotokopiak konpultsatuak izango dira):

— Nortasun-agiriaren fotokopia.

— Gida baimenen fotokopia.

— Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.

— Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, lehiaketaren fasean baloratuak izateko.

Laneko esperientzia egiaztatu beharko da lan egindako enpresek edo/eta administrazioek egindako ziurtagirien bidez, bertan kontratuaren iraupena, dedikazioa eta lanaren eginkizunak zehaztuz; eta, gainera, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Eskabidean Bergarako Udalean egindako zerbitzuak eta laneko esperientzia adierazi baditu, ez da agiri bidez egiaztatu beharrik izango, eta izangai bakoitzaren espedientean azaltzen diren datuen arabera baloratuko dira.

5.- IZANGAIEN ONARPENA

Instantziak aurkezteko epea amaiturik, Udaleko Lehendakariak onartutako eta baztertutako izangaien behin behineko zerrenda onartuko du eta Udaletxe honetako iragarki taulan argitaratuko da, eskabideak aurkezteko **epea bukatu eta 2 laneguneko epean**.

Behin behineko zerrenda hori behin betikotzat hartuko da goian aipatutako 2. egunetik kontatzen hasita 3 egun naturaleko epean inolako erreklamaziorik jartzen ez bada. Erreklamazioak baleude, behin-betiko zerrenda onartuko duen ebazpen baten bitartez onartuak edo baztertuak izango dira.

Lehenengo frogaren eguna onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendarekin batera argitaratuko da udaleko iragarki taulan.

Froga hau azaroko hirugarren astean izango da. Epaimahaiak egokien irizten dion moduan emango du ondorengo ariketen berri.

6.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

6.1. Osaera: Deituriko hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondokoak kontuan izanda eratuko da: Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 60. artikuluan, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 8/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta alkate-lehendakariak dekretu bidez erabakitako kideek osatuko dute eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Langileen ordezkariak izendatutako kide batek eta euskara zerbitzuburuak hartuko dute parte epaimahaian. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen zerrenda Udaleko iragarki taulan argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakariak izendatuta.

Udalean presentzia duten alderdi politikoen ordezkariak parte har dezakete begirale moduan.

6.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiek izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. Abstentzia eta errefusatzeta. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

6.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lan egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezeko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

6.6. Jarduketa prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, Idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik. Idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere sortu daitezkeen kontratazio premiei erantzuteko proposaturiko izangaien ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari,.

d) Izangai batek ere gaudituko ez balitu baztertzailak diren proba guztiak, deialdia hutsik aitortuko da.

7.- HAUTAKETA PROZEDURA

Izangaiak hautatzeko prozedurak hurrengo aldiak izango ditu:

- a) Oposizioaldia
- b) Lehiaketaldia

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak –baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere-, hauta-prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

OPOSIZIOALDIA:

Ondoren aipatzen diren ariketez osatuko da:

- **Lehen ariketa:** Derrigorrezkoa eta baztertzaila. Ariketa hau bi frogek osatuko dute:

Proba teorikoa. Lehen eranskinean jasotako gaiak edota lanpostuarekin zerikusia duten galderei erantzun beharko zaie. Epaimahaiak erabakiko du izangaiek erantzun beharrekoak, test moduko izango den, eta nola puntuatuko den.

Proba honetan, gehienez ere, 10 puntu lortu ahal izango dira.

Proba praktikoa: Elektrikari lanpostuarekin zerikusia du(t)en proba(k) egin beharko dituzte.

Proba honetan, gehienez ere, 20 puntu lortu ahal izango dira

Ariketa hau pasatu ahal izateko derrigorrezkoa izango da proba bakoitzaren puntuazioaren %50 ateratzea.

-- **Bigarren ariketa**: Derrigorrezkoa eta baztertzalea.

Euskarako froga. Izangaien euskara maila neurtzeko ahozko eta idatzizko froga egingo da. Derrigorrezko 2. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara maila dutela egiaztatu beharko dute. Ez da punturik emango eta izangaiak gai edo ezgai sailkatuko dira. Froga hau gainditzen ez dutenek hautaketa bidetik baztertuta geldituko dira.

Froga honek barne eraginak izango ditu eta Bergarako Udalak ez du inongo ziurtagiririk luzatuko.

Ez dute froga hau egin beharrik izango ziurtatzen dutenak 2. hizkuntza eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla, betiere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera.

Egiaztapen hau froga hasi baino lehen aurkeztu beharko da.

LEHIAKETALDIA

Instantziarekin batera aurkeztutako ziurtagiriak ere horrela baloratuko dira:

- Edozein Administrazio Publikotan elektrikari lanetan esperientzia izatea, hileko 0,2 puntu, gehienez ere 4 puntu.
- Enpresa pribatuan elektrikari lanetan lan esperientzia izatea, hileko 0,1 puntu, eta gehienez ere 4 puntu.

8.- ONARTUEN ZERRENDA ETA KONTRATATZEKO PROZEDURA

Proba baztertzaleak gainditu ondoren, oposizio-lehiaketaren azken kalifikazioa izangai bakoitzak oposizio-aldian eta lehiaketa-aldian lortutako puntuak batuta aterako da eta kalifikazio horrek behin-betiko puntuazio hurrenkera erabakiko du.

Epaimahaiak, merezimenduak baloratu eta ariketak kalifikatu ondoren, lehiaketa-oposizioa gainditu duen izangaiaren izena argitaratuko du. Era berean, hautaketa-prozedura gainditu duen izangai bakoitzaren behin-betiko puntuazioa argitaratuko du.

Izangaiek behin-betiko emaitzak argitaratu ondoren, 10 eguneko epea izango dute Epaimahaiaren aurrean erreklamazioak egiteko. Epe hau bukatu eta gero, Epaimahaiak gainditu duten izangaiekin puntuazioaren arabera lan-poltsa bat osatzeko proposamena egingo dio Alkatetzari

9.- LANPOLTSA

Plaza ez eskuratu baina oposizioa gainditzen duten hautagaiekin elektrikarien lan-poltsa osatuko da.

Lan poltsa hau 2009ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean . Hasieran urte beteko iraupena izango du, eta indarraldia bukatu baino 15 egun lehenago Udalak kontrakoa

erabakitzen ez duen bitartean, urtez urte luzatzen joango da, gehienez ere 5 urteko iraupena izango duelarik.

Lan-poltsaren funtzionamendua izango da Udalak 2006ko apirilaren 4an, Alkatearen dekretu bidez onartua duen lan-poltsen erabilerarako barne araudiak jasotzen duena.

10.-DOKUMENTAZIOA ITZULTZEA

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, lan-poltsetan gelditzen direnek izan ezik.

Hautaketa prozesua bukatu eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

11.- PROZESUAREN ARGITALPENAK

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko Web orrian ere argitaratuko dira (www.bergara.net).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo partehartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako, eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin de Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

12.- GORABEHERAK

Epaimahaiak baimena du aurkezten diren zalantzak argitzeko eta Lehiaketa-Oposizioa ondo joan dadin beharrezko erabakiak hartzeko oinarri hauetan aurreikusten ez den guztian.

Ariketetan lortutako maila plaza egoki betetzeko beharko litzatekeena ez dela iritziko balitz, deialdia bete gabe deklara liteke.

13.- INPUGNAZIOA

Oinarri hauek interesatuek inpugnatu egin ditzakete indarrean dagoen Administrazio Publikoen Erregimen Juridiko eta Prozedura Administratibo Bateratuaren Legean aurreikusitako moduan eta epeetan.

I. ERANSKINA

1. EZAGUTZE OROKORRA:

- a) Elektrizitatea: Kontzeptua.
- b) Energia elektrikoa sortzeko erak.
- c) Erakarpena eta aldarapena. Karga elektrikoa.
- d) Korrante elektrikoa.
- e) Material eroaleak eta isolatzaileak.

2. NEURRI-GAILUAK.

- a) Magnitude elektriko nagusiak.
- b) Magnitude nagusiak luminoteknien.
- c) Korrante elektrikoko motak
- d) Korrante elektrikoak sortzen dituen ondorioak.

3. ZIRKUITU ELEKTRIKOA

- a) Kontzeptua.
- b) Etxebizitzetako eta Argiteri publikoaren zirkuitu-motak
- c) Banaketarako eta babeserako koadroa.
- d) Lur-konexioa.

4. MATERIAL ELEKTRIKOAK

- a) Eroale elektrikoak.
- b) Lanparak.
- c) Larrialdiko argiteria.
- d) Transformadorea.

5. Elektrikariaren segurtasuna Istripuei aurre egiteko neurriak.